

**JAZ ZUBIAURRE ENPRESAREN MENDEURRENA**  
**CENTENARIO DE LA EMPRESA JAZ ZUBIAURRE**

2024-09-13 Eibar 13-09-2024

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Herri agintari eta ordezkariok, JAZ Zubiaurre enpresaren arduradun, kideok, langileok, jaun andreok, egun on!

Hasteko eta behin, zorionak ehun urte hauek betetzeagatik, ez da ohikoa. Uste dut komentatzen zela Euskal Autonomi Erkidegoan hogeitamasei bat enpresa daudela bakarrik ehun urte bete egin dituztenek eta hori azpimarratzekoa bada, beraz zorionak JAZ enpresa osatzen duzuen pertsona guztiei!

Zorionak eta eskerrik asko duela ehun urte proiektu hau irudikatu eta martxan jarri zutenei. Zorionak eta eskerrik asko belaunaldiz belaunaldi indartu eta garatu duzuen pertsona guztiei!

Ez da bat ere erraza egin duzuen egitea.

Gaur egun, programa asko ditugu inbertsio eta enpresa berrien sorreran laguntzeko. Baina hunkigarria da pentsatzea duela ehun urteko baldintzetan zer nolako indarra eta ausardia behar izan zuten aitzindari horiek horrelako enpresa bat zerotik hasteko.

Pertsona horiek guztiak eredu dira gaur egun. Baita ere, urtez urte, JAZ enpresa hazten eta lehiakorrak izaten lagundu duzuen pertsona guztiak ere.

Ekitaldi hau omenaldi bat da. Alde batetik, enpresa-munduaren eta enpresa gizon eta emakumeen garrantzia balioan jartzeko. Eta, bestetik, etorkizunari baikortasunez begiratzeko.

Zuen konpromisoa eta ilusioa ezagututa, ziur gaude enpresa honek urte luzeetan lehiakortasuna irabazten jarraituko duela eta, horri esker, gure herria irabazten aterako dela. Lan aukera berriak sortuko dira, guztion ongizateari ekarpen paregabea eskainiz.

Gaur, erakunde publikoetatik ekintzailtza babesten eta laguntzen dugu. Berez, zuek zarete nabarmendu nahi dugun ekintzailtzaren adibide eta eredu garbia.

Gainera, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen adibide eta eredua ere bazarete. Ez da gutxi.

Familia enpresa txiki bezala jaio zineten. Orain, inbertsio berriak sustatzen dituzue, berrikuntza indartu eta zuen ekoizpena 65 herrialdeetan saltzen duzue, lehen mailako zerbitzua eskainiz.

Harro gaude zuen ibilbideaz. Eta etorkizunera begira erakusten duzuen gogoak bidea erakusten digu.

Esta misma semana, en el Foro de Nueva Economía, he tenido la oportunidad de subrayar las expectativas positivas con que contamos en el ámbito económico, empresarial e industrial en Euskadi.

Somos conscientes de las dificultades y las condiciones de incertidumbre global que existen en todo en nuestro entorno europeo y en el conjunto del planeta, pero mantenemos una buena expectativa de crecimiento y generación de empleo, también en el sector industrial, que es el motor de la economía vasca. La industria no solo es el ADN sino el motor de la economía vasca, y por lo tanto el motor de nuestro bienestar.

Hoy quiero aprovechar este acto de conmemoración del centenario de la empresa JAZ Zubiaurre para hablar también de la función social que tiene la empresa en el país, en este caso en Euskadi, de la que han hablado quienes me habéis precedido, pero también de la labor y la figura de la empresaria y del empresario que son quienes dan el primer paso para que exista una empresa.

Una empresa que no deja de ser un proyecto colectivo entre quien la funda, quien la promueve y quienes trabajan en ese proyecto compartido y colectivo que es una empresa. Creo que también hay que reivindicar hoy aquí la función social que tienen las empresarias y los empresarios en la promoción de riqueza, de empleo y de bienestar para nuestro país.

Creo que esta empresa JAZ, hoy permite visualizar que si no hubiéramos tenido a una persona que hace 100 años hubiera dado ese paso, hoy no estaríamos aquí y no podríamos compartir no solo la trayectoria brillante de una empresa que cumple 100 años, sino que hubiera habido generaciones de personas de Eibar, de Euskadi y de otras partes del mundo que gracias a esa iniciativa han podido construir un proyecto empresarial colectivo, generar riqueza, generar empleo y por lo tanto generar bienestar para todos en este país.

Nos encontramos en una empresa centenaria, un pequeño taller hace cien años, que ha sabido adaptarse, crecer y sobre todo hacerlo pensando en la

competitividad del futuro. Lo ha hecho gracias a la visión, la capacidad de emprendimiento, la inversión y la asunción del riesgo de sus fundadores.

Por eso creo que es importante poner en valor todo esto. Por supuesto también agradecer que siga existiendo una vocación de innovación, de mejorar la calidad permanentemente y de hacerlo trabajando en equipo. Yo creo que una de las imágenes que hemos visto de todas las generaciones vale más que mil palabras. Sois un gran equipo y además seguís manteniendo ese espíritu de equipo con generaciones precedentes.

Beraz, JAZ Zubiaurre zarete eredugarriak eta eredu bikaina guztiontzat.

Desde el Gobierno nos enorgullece honrar a quienes pusieron en marcha esta empresa familiar hace 100 años y a todas las personas que han contribuido a que la empresa siga adelante, también comprobar que celebráis este centenario mirando al futuro, y ver que seguís siendo una gran referencia, no solo para el mundo de la empresa, también para el conjunto de nuestra sociedad.

Horregatik guztiagatik, zorionak eta eskerrik asko JAZ Zubiaurre enpresaren kide guztiei eta urte askorako!